

## **ORMAIZTEGI / Liburu azoka arrakastatsua izan zen**

Liburu eguna ospatu dela eta gure herrian lehenengo aldiz liburu azoka burutu zen. Ekimenak arrakasta izan duela jakin arazi dute antolatzaleek, hain zuzen 300 liburu baino gehiago trukatu baitituzte. Liburu azoka Ormaiztegiko Udaleko Kultura sailak eta Zumalakarregi museoak antolatu dute. Herritarrek astebete izan zuten etxearen zitzazken liburuak liburutegira edo museora eramateko. Eramandako liburu bakoitzeko txartel bat jaso zuten, ondoren txartel horiek liburuengatik aldatzeko aukera izan zuten azokan. Liburutegi eta museokoek ere liburuak eraman zitzazken azokara bertan trukatzeko asmoz. Azoka zubipe kirolegiaren aurrean ospatu zen, herritar asko hurbildu zelarik bertara azokan parte hartzea. Herriko haur eta gaztetxoak eskolatik ateratzerako azoka prestatuta zegoenez beraiek izan ziren azokan parte hartzen lehenak. Dena den herritar helduek ere parte hartu zuten aurten lehenengo aldiz ospatu zen azokan.